#15.EDIZIOA

euskarabildua

TEKNOLOGIA · BURUJABETZA



ADIMEN ARTIFIZIALA HERRIAREN ZERBITZURA

Nola eraiki ekosistema burujabe eta saretua?

Urriaren 27an, 09:00etan · San Telmo Museoa (Donostia)

IZENA EMAN: www.euskarabildua.eus

BADIRA EUSKAL HERRIAN ADIMEN ARTIFIZIAL BURUJABEAREN OINARRIAK

'Bertako Adimen Artifiziala egiteko aukera dugu', esan zuen Eneko Agirrek, Hizkuntza-Teknologiekin lan egiten duen EHUko HiTZ ikerketa-zentroko zuzendariak, urriaren 27an Donostiako San Telmo Museoan egin zen Euskarabildua jardunaldian.

Egiaz, jardunaldian zehar garbi geratu zen Euskal Herrian badirela hainbat ikerketa zentro, datu zentro, enpresa eta aditu eta elkarlanean ari direnak.

Elhuyarreko Hizkuntza eta Teknologiako koordinatzaile Itziar Cortesek estrategia beharra aipatu zuen. Ideia hori bera azpimarratu zuen Eli Pombok lehenengo kudeatzaileak jardunaldiaren hasieran. Adimen Artifiziala geruza desberdinen osaketa bezala aurkeztu zuen: azpiegiturak, ereduak, datuak eta aplikazioak. Estatuek paper aktiboa jokatu behar dutela adierazi zuen Pombok:

"Estatuek benetako burujabetza helburu duten geruzak zeintzuk diren definitu behar dute, zeintzuk diren behin-behineko menpekotasuna izan dezaketenak, zeintzuk derrigorrez kode irekikoak izan behar dutenak, eta zeintzuk nazioarteko lankidetza eskatzen dutenak".



RAIN arkitektura ziberespazioa deszentralizatzeko

Jardunaldiko lehen hitzaldia Steen Rasmussen Danimarkako fisikari eta irakaslearena izan zen. Rasmussen-ek Adimen Artifiziala aztertzen du ikusteko nola algoritmoek prozesu biziak sor ditzaketen material biologikorik gabe eta ohartarazten du Adimen Artifiziala bere burua sortzeko eta mantentzeko gaitasuna duen sistema bilakatzen ari dela. Hau da, gizakiekiko mendekotasuna gutxitzen joango dela eta bere kabuz irauteko joera garatuko duela, izaki bizidunek egiten duten bezala.

Arrisku horien aurrean, Rasmussen-en ustez gakoa da arkitektura deszentralizatuak sortzea. Ildo horretatik RAIN arkitektura proposatu zuen, biologian inspiratutako komunikaziorako eta datuak gordetzeko azpiegitura-teknologia (A Bio-Inspired Communication and Data Storage Infrastructure). Raspberry Pi bezalako 100 euroko mikro-ordenagailu merkeen bidez, datuak auzoko nodoetan sakabanatzea proposatzen du fisikari daniarrak. Hau da, gure datu guztiak datu-zentro erraldoietan eduki beharrean, norberaren etxean eta auzokideen etxeetan gordetzea. Halaber, gobernantza publikoa berreskuratzeko, oligopolioak zatitzea eta ziberespazioa ondasun ordezkaezin, publiko eta kritiko gisa tratatzea eskatu zuen.



Jardunaldian zehar entzundakoak

Goiz osoan zehar, adituek, ikertzaileek eta tokiko eragileek Adimen Artifizial burujabearen beharraz eta Euskal Herriko egoeraz hausnartu zuten, gurean azpiegituren, ereduen edo datuen alorrean zer egoeratan gauden aztertuz.

Kronika osoa irakurri:

ELI POMBO
IAMETZAKO KUDEATZAILEA

Herrialdeek Adimen Artifizial burujabea behar dute, AA berezi bat, euren historian eta kulturan ainguratua eta interes publikoko beharretara eta emaitzetara egokitua. Nola lortu? Hortxe gakoa

ENEKO AGIRRE
HITZ ZENTROKO ZUZENDARIA

Euskara inoiz ez bezala dago teknologian eta bertako Adimen Artifiziala egiteko aukera dugu. Alabaina, kanpoko teknologietan bakarrik oinarritzen bagara, euskara bigarren mailako leku batean uzteko arriskua dugu.

STEEN RASMUSSEN
ZIENTZIALARIA

Europak, burujabetza nahi badu, nork bere etxean datu-zentro bat edukitzeko ametsa serio hartu beharko luke.

GERMAN RIGAU
HITZ ZENTROKO ZUZENDARIORDEA

"EAEk GPUetan 405 milioi euro inbertitu beharko lituzke"

KASU PRAKTIKOAK ETA ESPERIENTZIAK

Atsedenaldiaren ondoren, Euskal Herrian garatutako Adimen Artifizial burujabearen adierazle diren zenbait esperientzia eta kasu praktiko ezagutarazi ziren. Horietako batzuk hitzaldi formatuan eta beste batzuk bideo proiekzio bezala:



BAAI.EUS.

PuntuEus Fundazioak martxan jarritako egitasmoa da, Adimen Artifiziala erabilita, euskarazko webguneak modu errazean sortzeko zerbitzua. Euskarazko Latxa eredua erabiltzen du.

Barne dokumentazioarekin lan egiteko AA lokala eta eleanitza.

Bira Produkzioak kooperatibako Eñaut Tolosak eta Ametzagaiña I+G taldeko Naiara Garmendiak une honetan garatzen ari diren Idazkari Laguntzailea egitasmoaren berri eman zuten. Eñautek adierazi zuenez, duela urtebete Google Drive-tik Nextcloud-era egin zuten salto.

Egun Ametzagaiñarekin batera Nextcloud-en duten barne dokumentazioaren gainean Adimen Artifizial burujabea txertatzeko ahaleginetan ari dira, ereduak entrenatzen, besteak beste.

Ametzagaiñaren helburua informazioa lokalki tratatzeko arkitekturak eta sistemak prestatzea da, erakunde bakoitzaren beharretara eta baliabideetara egokituz.

ALIA proiektuko erakusgarriak.

EHU, HiTZ Zentroaren bidez, Adimen Artifiziala oinarri hartuta, lanean ari diren hainbat egitasmotan parte hartzen ari da, euskarazko Adimen Artifiziala gure mugetatik kanpora kokatuz.

Egitasmo horietako bat da ALIA proiektua, Espainiako Estatua Adimen Artifizialaren eta hizkuntza-teknologien garapenerako bultzatutako ekimen estrategiko eta publikoa, hizkuntza koofizialen presentzia eta burujabetza teknologikoa bermatzeko sortua.

ALIAren baitan, Euskal Herriko hainbat erakundek baliabide libreak erabiliz, demostradore edo erakusgarriak egin dituzte. Zehazki Euskarabilduan honako hauek aipatu ziren: RAG Dialnet (Dialnet), RAG zientifikoa (Surlab), Nextcloud AI (Ametzagaiña), Akta (Elhuyar), ALIA FM (Orai NLP) eta NatalIA (Natural Speech).

Clodei zerbitzua.

Alexander Gurrutxaga, Zarautzeko telekomunikazio ingeniaria da eta aurten Clodei enpresa jarri du martxan, Europako datu zentroen bidez, Adimen Artifiziala exekutatzeko GPU azpiegiturak eskaintzen dituen start-up-a.

Teknologia hezkuntzaren zerbitzura: BIRTLHren esperientzia.

BIRTLH Euskal Herriko Online Lanbide-Heziketa da.

Bertako Berrikuntza arduradun Mikel Aldalurrek hezkuntzaren benetako beharrei erantzuteko garatutako hiru tresna praktiko erakutsi zituen:

Irakurgailua: Moodle-ko testuak ozen irakurtzen dituen eta hitzez hitz azpimarratzen dituen plugina,

ikaskuntza-zailtasunak dituzten ikasleen karga kognitiboa gutxitzeko (HiTZ zentroko ahots-ereduetan oinarritua).

Bideo-Itzultzailea: Gaztelaniazko bideo-materialak euskarara automatikoki bikoizten ditu, jatorrizko ahotsa klonatuz eta transkripzio, itzulpen zein sintesi eredu irekiak konbinatuz.

Moodle sortzailea: Irakasleei ikastaroak, ebaluazio-irizpideak eta galdetegiak sortzen laguntzen dien tresna. Lan errepikakorrak bere gain hartuz, irakasleari denbora gehiago uzten dio ikasleei arreta pertsonalizatua emateko.

ZEIN DA ADIMEN ARTIFIZIAL BURUJABEAREN EKOSISTEMA EUSKAL HERRIAN?

ALIA

Proiektuko erakusgarriak:
- RAG Dialnet (Dialnet)
- RAG zientifikoa (Surlab)
- Nextcloud AI (Ametzagaiña)
- Akta (Elhuyar)
- ALIA FM (Orai NLP)
- NatalIA (Natural Speech).

BAAI.EUS

(PuntuEusFundazioa)

NEXTCLOUD

Barne-dokumentazioa eta AA lokala (Bira Produkzioak eta Ametzagaiña)

BIRTLH

Euskal Herriko Lanbide Heziketako AA aplikazio burujabeak:
- Moodle-eko testuen irakurgailua
- Bideo itzultzailea
- Moodle sortzailea



3. APLIKAZIOAK

kaixo@euskarabildua.eus

BESTERIK EZAGUTZEN BADUZU, JARRI GUREKIN HARREMANETAN

EHU-HITZ ZENTROA

LATXA LLM

EUSKORPORA

EUSKARAZKO DATUEN CORPUS DIGITALA

ORAI NLP

KIMU LLM

2. EREDU LIBREAK ETA DATUAK

DIPC (DONOSTI)

Donostia International Physics Center-ek, Hyperion superordenagailua dauka, 100 bat GPUrekin eta euskal ikerketa-komunitateari zerbitzua ematen dio.

IZARRALDE (BIDARTE)

Ipar Euskal Herriko taldea. IzarHost filialaren bidez Tier III+ datu-zentroa eta hodei-zerbitzu lokalak eskaintzen ditu.

1. AZPIEGITURAK

EJIE (GASTEIZ)

Eusko Jaurlaritzaren sozietate informatikoa. ArgiA plataforma garatu du administrazioan AA modu seguruan kudeatzeko.

NASERTIC (IRUÑA)

Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzura dagoen enpresa. RES sarearen bidez ikerketa zientifikorako HPC baliabideak eskaintzen ditu.

ADI DATA CENTER (ABANTO, ARRASATE)

Abanton eta Arrasaten kokatutako ekimen publiko-pribatua. Datuen subiranotasuna eta hodeiko biltegiratzea helburu ditu.

ni PUNTU .EUS

Zure pribatutasuna, gure hizkuntzan:
euskarazko posta eta hodei segurua



Aukeratu zure plana ni.eus webgunean!

DOAKOA
1 GB EDUKIERA

Kontu 1
zureizena@ni.eus

0€
URTEAN (+ BEZ)

AURRERATUA
10 GB EDUKIERA

Kontu 1 + .EUS domeinua
zureizena@zureizena.eus

36€
URTEAN (+ BEZ)

TALDEKOA
30 GB EDUKIERA

3 kontu + .EUS domeinua
zureizena@zureizena.eus

59€
URTEAN (+ BEZ)

PROFESIONALA
MUGAGABEA

∞ kontu + .EUS domeinua
zureizena@zureizena.eus

PUNTU .EUS · iametza · AZKUE FUNDAZIOA · XXXVIII. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA